

"LARRESORO" REKIN SOLASEAN

«Larresoro», 44 urte, aspaldidanik euskal idazle ugaria, ezin dakioke gaur arrotz gerta Z. ARGIA irakurtzen duen inori.

Harira gaitzen, beraz, haseratik beretik.

Alimaleko zakur beltz batek harrera zalapartatsua guri egin ondoren, etxe barnera pasa gara. Haren langelan paper asko ikusi dugu. Alasetan eta mahainaren gainean liburu asko eta asko, euskaraz eta erdara batzuez. Aldizkarien artean tarripataka erreparatu dugunez, azkeneko «Sciences et Avenir» delakoa hemen, azkeneko «Nouvel Observateur» hor, bizpahiru T.L.S. hor (Times-en astekaria, alegia), «Témoignage Chrétien» pare bat altzo batetan ahazturik itxuraz, «Herria», «Principe de Vian», «La Voz de España» batzuk, «Diario de Navarra», «Basque Eclair», «Le Monde Diplomatique», «L'Unité», «Enbata», «Goiz Argi», lau «Zabal» aleak pilo berezi batetan. Nik dakita zer besterik? «Z. Argi» batzuk ere bai, jakina. Dena nahasian. Eta mahain berezi batetan, geldirik, Olivetti eletriko bat.

—Barka nazazu —esan dit sartzekoan— hementxe zu hartzea. Z. ARGIA-kook etxekotzat zaitzutez-eta. Berdin baldin bazaizu hementxe hitzegingo dugu.

—Ez zen besterik falta! Zeure etxean zaude!...

—Desordenu honetan bizi naiz bada. Zer nahi duzu egitea? Ene lan-mahaina orain bezain besterik egon ohi da aspaldidanik. Paperak nahas-mahas, liburak betaren zai, mila asmo ezin inolaz ere obraturik... «Nagia beti lantsu» hori ote da ene kakoa?

—Tira, otoi! Ahal duzuna egiten duzu zuk; eta alfer izena, hain zuzen, ez dut uste euskal baranoan egoki datorikizunik.

—Eskerrik asko! —Larresorok erantzun.

—Goazen harira, beraz. Euskaldun-berria omen zara. Egia dea hori?

—Bai, bai; egia da. Gure aita eta ama euskaldunak izanik ere, erdaraz baizik ez zen egiten etxen. Geure etxetik kanpora ikasia dut nik euskaraz hitz egiten; eta ene anaiari, horregatik, Mikel Ugaldet euskaratu dio Euskal Margolaritzari buruzko bere liburua.

—Ezertxo ere ez zenekien haseran, beraz?

—Kontzientziaren mailan bederen ezertxo ere ez, «ura» eta «egun on» edo ez bada. Asturias-ko nahasmenduen garaian (1934-eko Urrian) beldur handia zabaldu omen zen bazterretan; eta ama eta anaiarekin joan nintzen Oñatiko Alzaa kalera, geure familiaren etxera alegia. Bolara labur batez hau egon nintzen, eta etxe hartan, ongi gogoratzen naiz, euskaraz apur bat ikasi nuen: zenbait astetan haur itiki batek ikas dezakeena. Bost urte nituen orduan.

Baina dena ahaztu nuen segidan. Eta 1939an Arantzazuko «Hospederia» enean hilabetez egon nintzenean (hamar urte nituenean, beraz) deusik ez nion hanga inori konprentzen; Kandido Izagirrerren laguntzaile izan zen «Frai Bixente» famatu hari ere ez. Besteren artean... Gauza bera 1942an Igantzin egia nuen egonaldian: deusik ez! Neure buruz honen xeheki mintzatzea barka zaidazu. Baina horien-



«Gure aldekoek berek burutik egindakotzat hartzen ninduten...»



Noiz sortuko ote da azkenean euskaldun «provo»-en taldea?

gatik uste dut euskaldun berria naizela esan daitekeela. Nahiz euskara nik sekula ez arrotz senditu.

—Eta noiz sortu zitzaizun euskaraz ikasteko asmoa?

—Oso gaztetandik. Betidanik nuen asmoa, nik uste. Betidanik neraman erdaldun izanaren espata bihotz minetan sarturik. Antiguatarra naiz, bada-kizu. Konpartan, Lurdes-txikin, Igeldon, Aieten, Txokolatenean, Ilarraberriin, euskaraz baizik ez zen egiten orain dela 30 urte. Gauza bera Igarako harzoan. Hantxe piztu zen nigan, nik uste, euskaraz ikasteko delibero tinkoa. Neure herrian, neure harzoan atxeman nuen arrotz neure burua; eta honek ikaragarriko mina ematen zidan. Kanpion, Eleizalde eta Ibar irakurri nituen orduan; eta, gosta ala gostarik euskalduntzea erabaki nuen. Euskararen mina zer den ongi ezagutua dut, beraz; nahiz pasadizutan barrera hemen abiatzea gehiegizkoa izango balitz ere.

—Eta, nola moldatu zinen ikasteko?

—Donostiako kaian antolatua genituen eskola batzuk. Itxiki Zubimendi izan zen ene lehenengo irakaslea; Itxiki Zumeta gero. Aditzaren korapiloetan Jon Etxaidek argitu ninduen lehenik. 1947-1948 urteez ari nartzai zu hitz egiten. Urte latzak haiek; eta oraino ere latzagoak ondokoak euskaltzaintzako.

—Zein gramatika erabiltzen zenuten?

—Zabala-Arana-rena zen erabili. Eta, bigarren urratsean, Arrigarai-Ataun-ena, eta «Euskaldun Loterregia». Gaitik behera ikasi nituen denok. 1950eko urtean Bilbon ijeneru ikasle nintzelarik, besterik ezinean gaurdian hasten nuen eguneroko neure euskal ikasaldia; eta, maisurik gabe eta inolaik laguntzarik gabe, gaueko hirurak arte gutxienez ez nintzen inoiz oheratzen. Gau minean ikasi dut, beraz, euskaraz.

—Ez bide duzu oso erraza izan ikastea, ez.

—Ez horixe! Eta gure ez zen orduan batere gaurkoaren antzekoa. Guro aldekoek berek burutik egindakotzat hartzen ninduten; eta aurkakoe... pentsa!

—Zure iritziz zer da euskara euskalduntzat? Zertan geldituko litzateke Euskal Herria euskaraz galduko balu?

—Asmakizunetan ibili beharrik ez dago. Santo Domingo de la Calzada Ezkabarre izan da. Ezkarai, Alabarrena, Nalara, Herramelluri, Otsanduri, Ollauri, euskaldunak izan dira. Era berean Jaka, Aierbe, Berari, Eskuain, euskaldunak izan dira. Badakigu ordea, Errijoa eta Huesca zer bilakatu diren. Zure galderaren erantzuna, hortaz, Kondairak emana du. «Euskal Herria euskaldun herria da. Ni neu ez naiz «vasco» ez «basque», arrotzek ikusirik baizik. Erdal «Vasconia» ez da ene herria; baina berriz Euskal Herria bilaka dadin nahi dut, eta hala gertatuko da nik uste.

—Euskarazko beste liburu askoren artean, «Hizkuntza eta Pentsakera» deritzana idatzi duzu. Esaiguz hitz bitan liburu horren mamia.

—Euskararen deia bihotzean litzaturik daramagu euskaldunok. Euskal Herriaz batere axolalzen ez direnak berak negarrez hasten dira maiz Iparragirrerren kantuak entzutean. Zergatik? Ama-hizkuntzaren deia ezin sakonagoa eta bortitzagoa delako. Baina sendimendu horren funtsa azter daiteke. Eta, alderdi batetik bederen, estrukturalismoak eman du azalpenik argitsuena. «Hizkuntza eta Pentsakera»k, horrela, euskararen balioa zertan datzan argitu nahi izan du estrukturalismoaren argitan. Uste dudanez, gizonaren taxu-mena, estruktura-mena, sakonagoa da produzio-beharretatik heldu omen zaigun mintzatu beharra baino. Eta egiaz zor zaiona azaldu dut, «moda»ko iritzi batzuen kontra badao ere.

—Hirkuntzarekiko atxikimendu edo jaiera hori gure artean itsastan eta hedatzen ari dela iruditzen ahal zaizu?

—Zalantzarik gabe: bai. Ikastolen gertakaria, bere maila eta indar horretan, ez da inoiz ikusi. Eta euskaldun berri gazteen ugalketa ere ez. Euskaltzale gazteek gero eta gehiago dakite; eta guk haien adinean genekiena baino aisa gehiago.

—Baikor zaude, hortaz?

—Bai eta ez. Urrats handi bat eman dugu; hau gauza agria da. Baina oraindik ere euskaltzale (??) erdaldunak barra-barra ari dira erdaraz biltzarretan, euskal giroetan, lagunartean, bazterrak lasai baino lasakiago erdaldun erazten. Oraindik ere euskaldunok atzeraka eta lotsaturik bezala gaude, erdaldun bakar bat aski da hamar euskaldun erdarara ekartzeko! Noiz sortuko ote da azkenean euskaldun «provo»-en taldea? Ni zai nago aspaldi honetan. Baina «por educación», «pour de raisons d'efficacité», «para no herir», eta abar, euskara behin eta berriz bazterretara leku guztietan. Noiz arte? Noiz lotsatuko dira erdaldunok gure herrian erdaraz ari izateaz? Noiz entzungo ditugu isilka erdaldunak, eta «para no herirnos» euskaraz motelki ari? Noiz debru hartuko ote dugu aurkez; flamendarek, esate baterako, Flandetan hartu duten bezala?

—Ezin esan guk ere. Zein bide ikusten duzu zuk euskarara aurrera ateratzeko?

—Zuk dakizun hori. Zeren-eta eskola, administrazioa, irratia, telebista, dendak, lantegiak, unibertsitatea, osoki euskaraz izatea guztiz eta hertsiki beharrezkoa baita euskaraz bizirik atxikitzeo. Bestela kitto da, eta azkar Dena ala batere ez. XX. mendean bizi gara, ez Harri Haroan edo Tasmania urrun batetan. Ala Bilboko Gran Via guztia euskaraz ari ikusiko dugu, ala Errigotiaiko azken tonterretan haserriarrak berak erdaraz entzungo ditugu. Utz dituzgun ametsak, Jainkoarren, alde batera!

—Hortaz gaur zer?

—Ikastolak eta euskara batua. Hizkuntzaren maila soilaz ari naiz, jakina. Ikastolen kontra eta euskara batuen kontra daudenak euskararen etsai zitakelk baizik ez dira. Berdin zait noren izenean datozten.

—Nola, ordea?

—Zehazki dena azaltzea luzezia litzateke. Rikarde Arregik alpatu ohi zidan kezka hura gogoraziko dut hemen: «marxinalismo»a. Euskal Herrian urtean 49 mila miloi peza baino gehiago ematen du ageriko zergatara. Hots, Euskaltzaindiak berak bere azkeneko Agirian (1973-X-26) hau dio: «(Diru-kutxan) dagoena: 95.587,18 peza»... Hauxe da egoeraren irudia! Edozein lekutan gertatzen denaren arabera gure zerga-kopuraren %3 edo %4 baizik erabiliko ez bagezu, mila miloi peza izango genituzke urtean euskal irakaskintza eta euskal jakintzak oro bultzatzeo. Soluziorik? Badakigu guk biok. Hanartean ikastolak nola ordaintzen diren badakigu; euskal liburuak nola argitaratzen diren ere bai. Nola bizi dira euskal kulturaz arduratzen diren gizonak? Badut nik neronek horren berri... Zenbat irabazten dute andereñoek? Hobe dugu isildu txitxareak ez nahastutzeo! Nola nahi dugu, beraz, euskara benetan piz dadin? Non dira euskal kulturaz osoki emanak bizi daitezkeanak?

Gure dirudunek barkaziorik ez gutela esaten dutenak, horretara, ez dira oso oker ari... «Gure euskera maitia» oihu egitea edo kantatzea ez baita aski. Dirubideak eman behar dira. Intelektualek beren adimena osoki eskaintzen duten bezala, dirudunek osoki ere eskaini behar lukete beren altxorra. Urruntxo gaude!

Euskal burgesia nagusiak uko egin dio euskarari, eta 80 urte honetan azkartu egin du bere ukoa. Hauxe da «marxinalismo»aren gakoaren parte bat. Beste partea zein den ongi dakite denek. Hots, zikoizeriatik, apurkeriatik, limosnaz bizi beharretik iritengo ez garen bitartean, euskal kultura «amateur»-en kultura izango da; eta fruituak hortxe ditugu: sasi-jakintsuak ozeki mintzo, eta mintzatu behar luketenak... bizi-beharrez urrun. Euskal kulturaz biritzeko gertu daudenei (gaudenei hobe) dirubiderik emango ez zaien artean, euskara galtzorian egongo da burutik...

—Eta gaurko aski delakoan, hantxe utzi dugu Larresoro lankidea, anitz eginkizunen artean murgildurik, eta euskal taupadak entegabe nondik edo handik nola somatuko lehia bizian.